Alegiako Udala

Diligentzia: Nik Idazkariak jartzen dut horrela jasota gera dadin baldintza plegu hau, 2021ekoazaroaren 9ko Alkatetzaren erabaki bidez onartu zen bezala.
Alegia, 2021eko azaroak 9

ALEGIAKO UDALA GIPUZKOA

ALEGIAKO UDALAREN ETXEZ ETZEKO LAGUNTZA ZERBITZUA

PROZEDURA IREKI BIDEZ ZERBITZUAK KONTRATATZEKO KLAUSULA ADMINISTRATIBO PARTIKULAR TIPOEN PLEGUA

I. KONTRATUAREN ALDE OROKORRAK ETA KONFIGURAZIOA

1. KONTRATUAREN HELBURUA

Plegu honetan oinarrituta egiten den kontratuaren helburua **ALEGIAKO UDALAREN ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA** izango da, kontratuzko izaera izango duen espedientean agertzen den dokumentazio teknikoarekin bat.

Kontratuaren helburua Alegiako Udalak kudeatzen du, menpekotasuna duten pertsonei etxez etxeko laguntza zerbitzua finantzatzeko helburuarekin 2018/06/20an Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Alegiako Udalak sinaturiko elkarlan akordioarekin bat (luzatua), hemen aipatzen dena eta espreski lotzen dena.

Zerbitzua eskaintzeko, Baldintza Teknikoen Pleguan zehazten denaz gain, ondoko eskakizunak ere oinarrizkoak dira:

1.- Kontratistak, une oro, Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetako edozein ezagutzen duten eta kanpoko laguntzarik gabe modu arrunt eta zuzenean komunikatzeko gaitasunarekin dominatzen duten pertsonekin eskaini beharko du etxez etxeko zerbitzua.

2.- Kontratistak, uneo oro, zerbitzua eskaintzeko derrigorrezko oinarrizko prestakuntza teknikoa duten pertsonekin eskaini beharko du etxez etxeko zerbitzua. Prestakuntza hori, edozein kasutan, dokumentalki frogatu beharko da akademikoki homologatuta, zerbitzua eskaintzen hasi aurretik. Edozein kasutan, zerbitzuarekin lotura duten langileek euren formakuntza eguneratu beharko dute modu zehatzean, ezindu eta menpekotasuna duten pertsonen zaintzatik eratorritako exigentziekin lotuta.

3.- Erabiltzaile potentzialen beharren menpekoa den eskaera jakinaren araberakoa den zerbitzu publikoaren izaera aldakorra eta malgua kontuan izanda, kontratuaren exekuzioak izaera horri berari erantzungo dio, une oro zerbitzua eta baita erabiltzaile ezberdinentzako zerbitzu pertsonalizatuaren ordutegiak egokituz.

2. KONTRATATZEKO BEHARRA ARRAZOITZEA.

Preskripzio teknikoen pleguan agertzen dira Administrazio hau plegu honetan agertzen den kontratua egitera bultzatu duten arrazoiak.

3. GAUZATZE EPEA

Diligentzia: Nik Idazkariak jartzen dut horrela jasota gera dadin baldintza plegu hau, 2021ekoazaroaren 9ko Alkatetzaren erabaki bidez onartua izan zela.
Alegia, 2021eko azaroak 9

Zerbitzuaren gauzatze epe osoa BI URTEkoa izango da, kontratua formalizatzen den egunaren hurrengotik kontatzen hasita.

Aipatu epea gaindituta, kontratista berandutu egin dela ondorioztatuko da eta horretarako ez da Administrazioaren aldetik aurretiazko agindurik beharrezkoa izango.

4. LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA ETA KONTRATUAREN AURREIKUSITAKO BALIOA

Orduko gehienezko prezioa, astegunetan: 18,14€/orduko, gehi BEZari (%4) dagozkion 0,73 zentimoak, guztira, 18,87/orduko osatuz.

Orduko gehienezko prezioa, jaiegun eta asteburuetan: 21,79€/orduko, gehi BEZari (%4) dagozkion 0,87 zentimoak, guztira, 22,66€/orduko osatuz.

Aipatu kopuru horiek lizitatzaileen aldetik hobetu ahalko dira.

Eskaintzan prezioa modu xehatuan adierazi beharko da, aplikatzen den BEZ mota adieraziz.

Kontratuaren prezioa, adierazitako orduko prezioa aurtengo ekitaldirako aurreikusten den 3.300-4.000 ordutako lan zamarekin biderkatuta aterako da.

Azken urteetako bataz besteko lan zamaren estatistikak, urteko fakturazio borobildua 62.000,00€-75.500,00€ artean aurreikusten du, BEZa barne.

1.- Lizitazioko oinarrizko aurrekontua 18,14€ gehi BEZari dagozkion 0,73€ izango da; aurrekontu hori lizitatzaileek hobetu ahalko dute.

Azaroaren 8ko Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legeko (aurrerantzean SPKL) 100.2 artikuluan aipatzen denaren arabera, aipatu aurrekontua modu honetan xehatzen da:

- Langile kostuak: 14,69€
- Beste kostu zuzenak: 0,00€
- Zeharkako kostuak (GO+MI %19): 3,45€
- Hainbat aldizkako gastu: 0,00€

2.- Kontratuaren estimatutako prezioa urteko 72.560,00€koa da, BEZa kanpo. Exekuzioko epean estimazio osoa: 145.120,00€

5. FINANTZAZIOA

Kontratuaren prezioa ordaintzeko, indarrean den ekitaldiko aurrekontuaren finantzazioa erabiltzea aurreikusten da. Aldi berean, aurrekontuen alorrean eskumena duen organoak, eragina jasan dezaketen hurrengo aurrekontuetan dagozkion kredituak gordetzeko konpromisoa hartzen du, hori guztia, kontratuaren helburu den deskribapen pleguko lehen artikuluak aipatzen duen elkarlanerako hitzarmenarekin lotuta.

6. ORDAINKETA ERREGIMENA

Diligentzia: Nik Idazkariak jartzen dut horrela jasota gera dadin baldintza plegu hau, 2021ekoazaroaren 9ko Alkatetzaren erabaki bidez onartua izan zena.
Alegia, 2021eko azaroak 9

ALEGIAKO UDALA
GIPUZKOA

Kontratuaren prezioaren ordainketa kobrantza dokumentua aurkeztu eta dagokion onespena jasotakoan egingo da, modu honetan:

Dagokion orduen likidazioaren araberako esleitutako prezioaren zatia fakturatuko da hilero.

SPKLaren hogeita hamabigarren xedapen gehigarriarekin bat, eta dagozkien fakturetan eragina izan dezan, kontabilitate publikoaren alorrean eskumenak dituen órgano administratiboa Alegiako Udala eta Kontratazio Organoa Alegiako Udaleko Osoko Bilkura dela adierazten da.

7. PREZIOEN BERRIKUSPENA

Kontratu honetan **ez da prezioen berrikuspenik egingo**, hasieran behintzat, espedientean zehazten den modura, SPKLko 103.1 artikuluarekin bat.

Berrikuspen kasuetarako, legez behintzat, ez da inolako adierazle edo berrikuspen formula konplexurik zehazten. Luzapena eskatuko balitz, alde kontratatzaileek oinarri ekonomikoa izango duen prezio berri bat negoziatu ahal izango dute, oinarritu eta arrazoitu beharko dena. Edozein kasutan, proposatzen den luzapen eperako prezio berriak ezingo du Gipuzkoako Foru Aldundiak zerbitzua eskaintzeko kontratua finantzatzeko ezarritako prezio esparrua baino zenbateko handiagoa izan.

Bat batean etorritako aldizkako berrikuspen kasuetarako, espedientean esaten den moduan, kontratu honen prezioak berrikusi ahal izango dira, SPKLko 103.2 artikuluan, Espainiako ekonomia desindexatzeko martxoaren 30eko 2/2015 Legeko 4 eta 5 artikuluak aipatzen dituen Errege Dekretuan eta Administrazio Publikoko Kontratuen Legeko Araudi Orokorreko 104 eta 106 artikuluetan esaten denarekin bat.

Berrikuspenean aplikatu behar den formula, ondokoa da:

- Onartutako eta argitaratutako hitzarmen kolektiboen aplikazioagatiko soldaten kostuen bariazio loteslearen aldaketa.
- Indarrean de legedia aplikatzeagatik Gizarte Segurantzako derrigorrezko kotizazioen kostuen bariazioaren aldaketa.
- Enplegatzailearentzat antzekoak eta derrigorrezkoak diren gertakizunen aldaketa.

8. BERMEAK

Kontratuaren esleipenduna, hitzartutako betebeharrak beteko dituela frogatzeko, esleipenaren zenbatekoaren %5aren baliokidea den behin betiko berme bat eratzera behartuta dago, BEZa kanpo.

Aipatu berme hori eratzeko epea, 17 zenbakidun klausulako eskakizunean zehazten dena izango da eta SPKLko 108 artikuluan zehazten diren motetako edozeinetan eratu ahal izango da. Eratze hori modu elektronikoan, informatikoan edo telematikoan egiaztatu ahal izango da.

Bermearen itzulketa edo bertan behera uztea, bere osotasunean edo dagokion kasuan, zati batean, azaroaren 8ko Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legeko 111 artikuluan aipatzen denaren arabera egingo da, behin berme epea gaindituta eta esleipendunak kontratuak zehaztutako betebehar guztiak egin ostean.

Diligentzia: Nik Idazkariak jartzen dut horrela jasota gera dadin baldintza plegu hau, 2021ekoazaroaren 9ko Alkatetzaren erabaki bidez onartua izan zela.
Alegia, 2021eko azaroak 9



II.- KONTRATAZIO PROZEDURA

9. ESLEIPEN PROZEDURA

Kontratu hau prozedura ireki bidez esleituko da, SPKLan aurreikusten denarekin bat; bere legearen izapidetzean, aipatu legean esaten denari eta bere garapen arauei jarraituko zaie.

10. LIZITAZIO ELEKTRONIKOA

Une honetan eskura dauden bitarteko material eta eraginkortasun bitartekoak kontuan hartuta, kontratu honekin lotutako eskaintzen dokumentazioa paper formatuan soilik aurkeztuko da, Udaleko Idazkaritzan, horretarako jarritako egutegi ta ordutegian, 9:00tatik 14.00etara.

Lizitazio hau modu elektronikoan izapidetuko da, azaroaren 8ko Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legeko xedapenekin bat. Ondorioz, Udalak lizitatzaileekin izango dituen harremanak ere modu elektronikoan bideratuko dira.

11. JAKINARAZPENAK ETA KOMUNIKAZIOAK

Espediente honekin lotura duten jakinarazpen eta komunikazio guztiak modu elektronikoan egingo dira, ondoko prozedura jarraituz:

1º) Hartzailearen esku jartzea.
2º) Jakinarazpenaren edo komunikazioaren edukira sarbidea.

Epeak jakinarazpenaren abisutik hasiko dira kontatzen (jakinarazpenaren helburu den ekintza kontratatzailearen profilean egun berean argitaratzen bada), edo jakinarazpena jasotzen denetik (ekintza ez bada kontratatzailearen profilean egun berean argitaratzen).

Jakinarazpena eskura jarri denetik hamar egun natural igarota, hartzaileak ez badu onartzen edo ukatzen badu, iraungitzat emango da eta jakinarazpen izapidea formalki betetzat joko da.

12. KONTRATATZEKO GAITASUNA

Kontratazio prozedura honetan, bere gaitasun juridiko osoaren jabe diren eta jarduteko moduan dauden, behar besteko kaudimen ekonomiko, finantzario, tekniko edo profesional duten eta SPKLko 71. artikuluan zehazten diren kontratatzeko debekuetakoren batean sartuta ez dauden pertsona naturalek edo juridikoek hartu ahal izango dute parte. Kaudimena 17-5º klausulan zehaztutako bitartekoen bidez egiaztatu eta aztertuko da.

Aldi berean, bere kabuz edo baimendutako pertsona batek ordezkatuta egin ahal izango dute, pertsona horri behar beste botere emanez. Pertsona juridiko baten ordezkari modura, pertsona horren kideetako bat den norbaitek parte hartzen duenean, dokumentalki frogatu beharko du

Diligentzia: Nik Idazkariak jartzen dut horrela jasota gera dadin baldintza plegu hau, 2021ekoazaroaren 9ko Alkatetzaren erabaki bidez onartua izan zela.
Alegia, 2021eko azaroak 9

horretarako ahalmena duela. Kasu batean zein bestean, ordezkaria den pertsonari eragiten diete kontrataziorako aipatu ezgaitasun arrazoiek.

Pertsona horiek, aldi berean, kontratu honen helburua den jarduera edo zerbitzua gauzatzeko, dagokion kasuan, galdagarria den gaikuntza enpresariala edo profesionala izan beharko dute.

13. ESLEIPEN IRIZPIDEAK

Kontratuaren esleipenerako oinarri bezala balio behar duten eskaintzen balorazio irizpideak eta esleitzen zaien garrantzia ondokoak dira:

A) Hautemate automatikoko irizpideak. Prezioa

B) Balio iritzidun irizpideak: Eduki gabe

Eskaintzen izaera neurrigabea edo ezohikoa Administrazio Publikoen Kontratuen Legeko Araudi Orokorreko 85. artikuluan eta ondorengoetan ezarritako parametroekin bat hauteman ahal izango da, aurkeztu diren baleko eskaintzen multzoarekiko erreferentziaz.

14. KONTRATAZIO MAHAIA

Kontratazio Mahaia ondoko kideek osatuko dute.

- Presidentea: ALKATEA EDO ESKUORDETZEN DUEN ZINEGOTZIA.
- Ahotsdunak:
  - IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA.
  - GIZARTE ZERBITZUETAKO TEKNIKARIA.
- Mahaiko idazkaria: ADMINISTRAZIO OROKORREKO KOORDINATZAILEA.

15. PROPOSAMENAK AURKEZTEKO ETA PLEGUETARA SARBIDEA IZATEKO EPEAK ETA EZAUGARRIAK

Une honetan eskura dauden bitarteko material eta eraginkortasun bitartekoak kontuan hartuta, kontratu honekin lotutako eskaintzen dokumentazioa paper formatuan soilik aurkeztuko da, Udaleko Idazkaritzan, horretarako jarritako egutegi ta ordutegian, 9:00tatik 14.00etara.

Lizitazio hau Udal honetako kontratatzailearen profilean argitaratuko da, Euskadiko Kontratazi Publikoko Plataforman sartuta dagoena.

Proposamenak modu elektronikoan aurkeztu beharko dira aipatu Plataformaren bidez, iragarkia agertzen den egunaren hurrengotik zenbatzen hasi eta hamabost (15) egun naturaleko epean, epe hori amaitze den eguneko 14:00ak arte.

Diligentzia: Nik Idazkariak jartzen dut horrela jasota gera dadin baldintza plegu hau, 2021ekoazaroaren 9ko Alkatetzaren erabaki bidez onartua izan zela.
Alegia, 2021eko azaroak 9.

Udal honetako kontratatzailearen profilera ondoko helbide honetatik sartu daiteke: https://www.contratacion.euskadi.eus. Bertan eskuratu ahal izango dira pleguak eta dokumentazio osagarria.

Lizitatzaileek pleguei edo dokumentazio osagarriari buruzko informazio osagarria eskatuko balute, proposamenak jasotzeko epemuga baino sei egun lehenagoko epean igorriko zaie, eskaera, proposamenak jasotzeko aurrez aipaturiko epemuga baino gutxienez 12 egun lehenago egina izan bada, beti ere.

SPKLko 136.2 eta 3 artikuluetan esaten denarekin bat, pleguei edo dokumentazio osagarriari buruzko informazio osagarria zehaztutako epeetan eman ezin denean edo eskaintzak soilik eremua bisitatu ostean edo pleguaren dokumentazio osagarria aurretiaz lekuan bertan kontsultatu ostean egin daitezkeenean, eskaintzak jasotzeko epea luzatu egingo da kaltetuak izan diren hautagaiek eskaintzak egin ahal izateko informazio guztia eskura dutela ondorioztatzen den arte.

Lizitazio prozedura honetan ez dira zehaztu diren bitarteko elektroniko bidez aurkezten ez diren eskaintzak onartuko. Hori egin ahal izateko, ezinbestekoa da Euskadiko Kontratazio Publikoko Plataforman edo Sektore Publikoko Kontratazio Plataforman erregistratutako erabiltzailea izatea.

Eskaintzaren bateko dokumenturen bat ondo ikusi ezin den kasuetan, gertaera hori jakinarazi eta 24 orduko epean lizitatzaileak, oker dagoen dokumentua berriz ere modu digitalean bidali beharko du. Ondoren bidaliko den dokumentuak ezingo du inolako aldaketarik izan hasiera batean eskaintzan sartu zen jatorrizkoarekin alderatuta. Kontratazio Organoak dokumentuak aldaketaren bat izan duela frogatzen badu, lizitatzailearen eskaintza ez da kontuan hartuko.

Proposamenek Klausula Administratibo Partikularren Plegu honetan aurreikusitakora egokitu beharko dute eta berau aurkezteak, lizitatzailearen aldetik, klausula edo baldintza horiek onartzea Dakar berarekin, salbuespenik edo erreserbarik gabe; aldi berean, Kontratazio Mahaiari eta Organoari, Euskadiko Lizitatzaile eta Klasifikaturiko Enpresen Erregistroan dauden datuak kontsultatzeko baimena ematen die.

Lizitatzaile bakoitzak ezingo du proposamen bat baino gehiago aurkeztu, aldaerak onartzearen kalterik gabe. Aldi baterako enpresa elkarte modura ere ezingo du proposamenik egin, aurrez norbanako modura egin badu eta ezingo du aldi baterako enpresa elkarte batean baino gehiagotan agertu. Arau horiek hausteak, lizitatzaile horrek egindako proposamen guztiak ez onartzea ekarriko du.

Informazio publikorako sarbideen alorrean indarrean den legediak dioenaren eta SPKLko esleipenaren iragarkiari eta hautagaiei zein lizitatzaileei eman beharreko informazioari buruzko xedapenen kalterik gabe, horiek, beraiek eskaintzak egiterakoan emandako informazioaren zati bat konfidentzial modura izendatu ahalko dute, bereziki sekretu tekniko edo komertzialei zein alor konfidentzialei dagokiena. Udalak ezingo du informazio hori zabaldu, dagokion lizitatzailearen oniritzirik gabe.

16. PROPOSAMENAK AURKEZTEKO MODUA

Lizitatzaileek hiru gutun-azal elektroniko aurkeztu beharko dituzte, lizitatzaileak edo ordezkatzen dituen pertsonak sinatuta eta gutun-azal bakoitzerako klausula hontan zehazten den edukiarekin.

«A» GUTUN-AZAL ELEKTRONIKOA.- «KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA»

Diligentzia: Nik Idazkariak jartzen dut horrela jasota gera dadin baldintza plegu hau, 2021ekoazaroaren 9ko Alkatetzaren erabaki bidez onartua izan zela.
Alegia, 2021eko azaroak 9

ALEGIAKO UDALA (Gipuzkoa) IDAZKARITZA

Gutun-azal honek ondoko dokumentuak izango ditu:

a) Gaitutako posta elektroniko helbidea.

Gaitutako posta elektroniko helbide bat izendatzea, SPKLko hamabosgarren xedapen gehigarrian esaten denarekin bat; kontratazio espediente honetatik eratorritako jakinarazpenak helbide horretara bidaliko dira.

b) Lizitatzailearen ardura adierazpena.

Adierazpen horretan, Administrazioarekin kontratatzeko legez ezarritako baldintzak betetzen dituela adieraziko du eta baita, kontratu hau lortzeko plegu honetan zehazten diren eskakizunak ere, espreski beronen 12 eta 17-5º klausuletan adierazitakoak. Adierazpena Europako Kontratazio Dokumentu Bakarraren (EKDB) formulariora egokituko da eta hori betetzeko plegu honen I eranskinean dauden argibideak jarraitu daitezke.

Dena den, Kontratazio Organoak edo Mahaiak, prozeduraren gauzatze ona bermatzeko helburuarekin, esleipenaren aurreko edozein unetan, lizitatzaileek plegu honetan aipatzen diren baldintzak betetzen dituztela ziurtatzen duen dokumentazioa eskatu ahal izango ditu, kontratua esleitu ahal izateko.

c) Aldi baterako enpresa elkarte bezala aurkezten diren operadore ekonomikoen kasuan, kide bakoitzak bere ardura adierazpena egin beharko du. Aldi berean, kontratua esleitzen bazaie, ABEEa formalki eratu beharko dutela dioen konpromisoa gehitu beharko dute eta ABEE horretan bakoitzaren izena, baldintzak eta parte hartzea zehaztu beharko dute.

d) SPKLko 75. artikuluan esaten denarekin bat, lizitatzailea beste erakunde batzuen kaudimenean eta bitartekoetan oinarritzen denean, horietako bakoitzak bere ardura adierazpena egin beharko du.

e) Kaudimen eskakizun ezberdinekin, atalka banatzeko kasuetan, kaudimen eskakizun berak ezartzen zaizkien atal bakoitzeko edo atal talde bakoitzeko ardura adierazpen bat gehituko da.

Legeak eta plegu honek eskatzen dituen nortasun, gaitasun eta kaudimen eskakizunen konkurrentzia aintzat hartzeko une erabakiorra, proposamenak aurkezteko ezarritako epearen amaiera izango da.

«B» GUTUN-AZAL ELEKTRONIKOA.- «BALIO IRITZI BIDEZKO BALORAZIO IRIZPIDEAK»

Eduki gabe.

«C» GUTUN-AZAL ELEKTRONIKOA.- «BALORAZIO AUTOMATIKOKO IRIZPIDEAK»

Gutun-azal honek ondoko dokumentuak izango ditu:

a) II Eranskinean atxikitako ereduari lerraturiko proposamen ekonomikoa.

Diligentzia: Nik Idazkariak jartzen dut horrela jasota gera dadin baldintza plegu hau, 2021ekoazaroaren 9ko Alkatetzaren erabaki bidez onartua izan zela.
Alegia, 2021eko azaroak 9

b) Banakako prezioen zerrenda, hala dagokionean.

c) Plegu honetako 13. klausulan adierazten diren gainontzeko hautemate automatikoko irizpideei loturikoak.

17. AURKEZTUTAKO DOKUMENTAZIOAREN IREKIERA ETA TRATAMENDUA, ENPRESEN HAUTAKETA ETA ESKAINTZEN BALORAZIOA

Behin proposamenak aurkezteko epea pasata, ondoko ekintzak gauzatuko dira:

1. «A» GUTUN-AZALA IREKITZEA

Mahaiak «A» gutun-azalaren irekiera elektronikoa gauzatuko du eta bertan dagoen dokumentazioa kalifikatuko du

SPKLko 141.2 artikulua aplikatuz, aurkeztutako dokumentuetan konpondu daitezkeen akatsak daudela ikusten badu, Mahaiak kaltetutako lizitatzaileei jakinaraziko die eta hiru egun naturaleko epea emango die akatsak zuzentzeko.

Gainera, lizitatzaileei jakinarazten zaizkien zuzenketa eskaerak Udaleko kontratatzailearen profilean eta Euskadiko Kontratazio Publikoko Plataforman ere iragarriko dira.

2. «B» GUTUN-AZALA IREKITZEA

Edukirik gabe.

3. «C» GUTUN-AZALA IREKITZEA

«B» gutun-azala ireki eta bertako dokumentazioa aztertu ostean, Kontratazio Mahaiak «C» gutun-azala irekiko du, Udaleko kontratatzaile profilean iragartzen den lekuan, egunean eta orduan. Horretarako, dokumentazio horretan akatsak edo hutsegiteak zuzendu beharko balira, Mahaiak gehienez sei egun balioduneko epea emango du hori gauzatzeko, aipatu 817/2009 Errege Dekretuko 27. artikuluarekin bat.

Ekitaldi horretan, eskaintza bakoitzean balio iritzi baten menpeko diren irizpideei emandako balorazioaren berri emango da.

1. ESKAINTZEN SAILKAPENA

Behin irizpide guztiak baloratuta, Konratazio Mahaiak aurkeztutako proposamenen sailkapena egingo du, handitik txikirako hurrenkeran; eta dagozkien ekintzen ostean, Kontratazio Organoari kontratua esleitzeko proposamena egingo dio.

Kontratua esleitzeko proposamenak ez dio inongo aldeko eskubiderik emango proposatua izan den lizitatzaileari; ez du horrelakorik izango, Administrazioaren aurrean, kontratua formalizatu arte.

Diligentzia: Nik Idazkariak jartzen dut horrela jasota gera dadin baldintza plegu hau, 2021eko azaroaren 9ko Alkatetzaren erabaki bidez onartua izan zela.
Alegia, 2021eko azaroak 9

ALEGIAKO UDALA (Gipuzkoa) IDAZKARITZA

SPKLko 149. artikuluan esaten denaren babesean, anormalki baxutzat jo daitekeen proposamen bat edo batzuk identifikatzen direnean, eskaintzen izaera baxu anormal hori aitortzeak lizitatzailearekin edo lizitatzaileekin eta dagokion zerbitzuko aholkularitza teknikoarekin audientzia bat eskatuko du aurretiaz. Kasu horretan, Kontratazio Organoak, lizitatzaileak emandako arrazoiak eta eskatutako txostenak kontuan izanda, Administrazioa asebetetzen duen eta bete daitekeen eskaintza mesedegarrienaren aldeko esleipena adostuko du.

Aitzitik, Organoak ondorioztatzen badu eskaintza ezin dela bete baja anormalak sartu direlako, eskaintza hori sailkapenetik kanpo utziko du eta esleipena eskaintza onenari emango dio, sailkapeneko hurrenkeraren arabera.

Ekintza guztiak espedientean bilduta geratuko dira, derrigorrean egin behar diren akten bidez.

2. LEHEN SAILKATUARI ESKAKIZUNA

Aurreko ekintzak eginda, kontratazio zerbitzuek lehen sailkatuari hamar egun balioduneko epea emango die eskakizuna jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, jarraian aipatzen diren ekintzak egin edo dokumentuak aurkezteko.

a) Parte hartzailearen edo bere ordezkariaren Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia. Gainera, beste pertsona edo erakunde baten ordezkari modura jokatzen denean, notario gaitasuna, Udal honek askietsia izango dena.

b) Lizitatzailea pertsona juridiko bat denean, Erregistro Merkantilean behar bezala izena emandako eratze eskritura, edo aldaketakoa, dagokion kasuan, eta identifikazio fiskal zenbakia, izena ematea aplikagarria den legedia merkantilaren arabera galdagarria denean. Ez balitz, jarduteko gaitasun egiaztapena eratze eskritura edo dokumentu, dokumentu edo bere jarduera erregulatzen duten arauak biltzen dituen fundatze ekitaldi bidez egingo da eta, dagokien kasuan, Erregistro Ofizialean izena emanda.

Europar Batasuneko kide diren Estatuetakoak baina nazionalitate espainarra ez duten enpresariak direnean, dagokien erregistroan izena emanda daudela egiaztatu beharko dute, kokatzen diren Estatuetako legediarekin duten akordiotik eratorrita edo ardura adierazpen edo ziurtagiri bat aurkeztuz, aplikazioko xedapen komunitarioekin bat.

Gainontzeko atzerriko enpresariek dagokien Estatuan Espainiako Misio Diplomatiko Iraunkorraren edo enpresaren egoitza dagoen lurralde eremuko Bulego Kontsularraren txosten batekin egiaztatu beharko dute jarduteko gaitasuna.

c) Jarduera Ekonomikoaren Gaineko Zergan alta emanda egotearen ziurtagiria, kontratuaren helburuari dagokion epigrafean, alta aurkeztuz indarrean den ekitaldiaz ari bada, edo JEGZren azken ordainagiria gainontzeko kasuetan, bi kasuetan aipatu zergaren matrikulan baja ez dela eman dioen ardura adierazpen batekin.

d) Lizitatzailearen kaudimen ekonomiko, finatzario, tekniko edo profesionalaren ziurtagiriak, SPKLko 87. artikuluko ... letran eta 90. artikuluko ... letran aipatzen diren bitartekoen bidez. Zehaztutako bitartekoen inguruan, enpresek kontratu honetarako bete beharko dituzten gutxieneko kaudimen eskakizunak hauek dira:
.....

e) Enpresari batzuk Aldi Baterako Enpresa Elkarte bat eratuz aurkezten badira lizitaziora, elkartea osatzen duen enpresa bakoitzak bere gaitasuna eta kaudimena

Diligentzia: Nik Idazkariak jartzen dut horretara jasota gera dadin baldintza pliegu hau, 2021eko azaroaren 9ko Alkatetzaren erabaki bidez onartua izan zena.
Alegia, 2021eko azaroak 9

egiaztatu beharko ditu, aurreko puntuetan esandakoarekin bat. Aldi berean, proposamenean, ABEEko enpresa bakoitzak egingo lukeen helburuko zatia zehaztu beharko dute, horien guztien kaudimen eskakizunak zehaztu eta egiaztatzeko helburuarekin.

f) Atzerriko enpresentzat, edozein ordenetako epaitegi eta auzitegi espainiarren jurisdikziopean jartzeko adierazpena, kontratutik eratorri litezkeen zuzeneko zein zeharkako edozein gertaeretarako, dagokion kasuan, lizitatzaileari legokiokeen atzerriko foru jurisdikizionalari uko eginez.

g) Zerga eta Gizarte Segurantzarekiko obligazioak betzen direnaren ziurtagiria edo Kontratazio Organoari modu zuzenean eskuratzeko baimena ematea.

h) Behin betiko bermea eratu izanaren ziurtagiria.

Aurreko a), b) eta d) letretan aipartutako baldintzak Euskadiko Lizitatzaile eta Enpresa Klasifikatuen Erregistro Ofizialaren ziurtagiri baten bidez edo ziurtagiri komunitario bidez egiaztatu ahal izango dira; hori guztia, SPKLko 96 eta 97 artikuluetan esaten denarekin bat. Atal honetan aipaturiko ziurtagiriak modu digitalean igorri ahalko dira.

Eskakizuna zehaztutako epean zuzen gauzatzen ez bada, lizitatzaileak bere eskaintza erretiratu duela ulertuko da eta kasu horretan, hurrengo lizitatzaileari dokumentazio bera eskatzeari ekingo zaio, eskaintzen sailkapenaren hurrenkerari jarraituz.

Atal honetan aipatze den eskakizunaren ostean aurkeztutako dokumentazioak, konpondu daitezkeen akatsak baditu, hiru egun naturaleko epe bat emango da berauek zuzentzeko eta hori zuzenean jakinarazio zaio lizitatzaileari. Aldi berean, Udaleko kontratatzailearen profilean iragarriko da.

18. ESLEIPENA ETA GAUZATZEA

Kontratazio Organoak kontratua eskaintza onena egin duen lizitatzaileari esleitzea adostuko du, lehen sailkatuari eskatutako dokumentazioa jaso eta ondorengo bost egun baliodunen barruan, SPKLko 150.3 artikuluak dioena aplikatuz.

Esleipenaren berri lizitatzaile guztiei emango zaie eta Erakunde honen kontratatzaile profilean argitaratuko da.

Kontratua lizitazio baldintzetara zehaztasun osoz egokitzen den dokumentu administratibo baten formalizazioaren bidez perfekzionatuko da eta dokumentu hori, edozein erregistro publikoetarako sarbidea izateko behar beste titulu izango da. Dena den, kontratistak kontratua eskritura publiko modura aurkeztea eskatu ahal izango du eta hortik eratorritako gastuak bere gain hartu beharko ditu.

19. KONTRATUA EZ GAUZATZEKO ERABAKIA ETA PROZEDURA BERTAN BEHERA UZTEA

SPKLko 152 artikuluan aurreikusten denarekin bat, Kontratazio Organoak, behar bezala arrazoituriko interes publikoko arrazoiengatik, kontratua ez esleitzeko edo betetzeko erabakia hartu ahal izango du. Prozedura albo batera uzteko aukera ere izango du kontratua edo esleipen prozeduraren arau erregulatzaileak prestatzeko arauetan konpondu ezin den akatsen bat hautemango balu. Kontratua ez betetzeko edo prozedura bertan behera uzteko erabakiak

Diligentzia: Nik Idazkariak jartzen dut horrela jasota gera dadin baldintza plegu hau, 2021ekoazaroaren 9ko Alkatetzaren erabaki bidez onartua izan zela.
Alegia, 2021eko azaroak 9

ALEGIAKO UDALA (Gipuzkoa) IDAZKARITZA

kontratua formalizatu aurretik gauzatu beharko dira eta aipatu artikuluan ezartzen diren eskakizunekin bat.

III. KONTRATUA GAUZATZEA

20. KONTRATUA GAUZATZEAREN ARAUDI OROKORRA

Kontratua kontratistaren arrisku eta zoripean gauzatuko da; plegu honetan biltzen diren klausulei lotuta eta dagokion kasuan, espedienteari atxikita dauden zehaztapen teknikoei lotuta; eta ahalmen horiek idatziz zein ahoz izango dituen Administrazioaren ikuskatze eta kontrolpean.

Kontratistari edo bere menpeko pertsonei egotzi dakizkiekeen ekintza eta hutsegiteengatik kontratuaren martxa ona arriskuan jartzen denean, beronen gauzatzean ordena jartzeko beharrezkoak diren neurriak hartzeko eskatu ahal izango du Administrazioak.

SPKLko 202.1 artikuluan esaten denarekin bat, kontratu hau gauzatzeko izaera sozial, laboral, etiko, ingurumeneko eta beste askotariko baldintza bereziak eskatuko dira.

Pleguko lehen artikuluan zehazten denarekin bat:

1.- Kontratista une oro etxez-etxeko laguntza zerbitzua eskaintzera derrigortuta dago, Erkidego Autonomikoko bi hizkuntza ofizialetako edozein behar adina ezagutu eta dominatzen duten eta kanpoko laguntzarik gabe modu normal eta zuzenean komunikatzeko gai diren pertsonekin.

2.- Kontratistak, une oro, zerbitzua eskaintzeko derrigorrezko oinarrizko prestakuntza teknikoa duten pertsonekin eskaini beharko du etxez etxeko zerbitzua. Prestakuntza hori, edozein kasutan, dokumentalki frogatu beharko da akademikoki homologatuta, zerbitzua eskaintzen hasi aurretik. Edozein kasutan, zerbitzuarekin lotura duten langileek euren formakuntza eguneratu beharko dute modu zehatzean, ezindu eta menpekotasuna duten pertsonen zaintzatik eratorritako exijentziekin lotuta.

3.- Erabiltzaile potentzialen beharren menpekoa den eskaera jakinaren araberakoa den zerbitzu publikoaren izaera aldakorra eta malgua kontuan izanda, kontratuaren exekuzioak izaera horri berari erantzungo dio, une oro zerbitzua eta baita erabiltzaile ezberdinentzako zerbitzu pertsonalizatuaren ordutegiak egokituz.

Aipatu baldintza horiek, ezinbesteko kontratuzko derrigortasun izaera dute; horrenbestean, SPKLko 201 artikuluan esaten denaren babesean, ez betetzea, kontratua eteteko besteko arrazoi modura hartu ahal izango da aipatu Legeko 211.1.f) artikuluan zehazten denaren eraginetara.

Zerbitzua zuzenean ematea herritarren mesederako izanik, kontratista ondoko betebeharretara lotua egongo da:

a) Zerbitzua hitzartutako jarraikortasunarekin eskaintzea eta zehaztutako konraprestazio ekonomikoa ordainduz, dagokion kasuan, erabiltzaileei, ezarritako baldintzetan erabiltzeko eskubidea bermatzea.

ALEGIAKO UDALA (Gipuzkoa) IDAZKARITZA

b) Zerbitzuaren ordena ona zaintzea.

c) Zerbitzuaren garapenak eskatzen dituen ekintzen ondorioz hirugarren pertsonei eragin dakizkiekeen kalteengatik kalte ordainak ematea.

d) Kontratuari lotuta, kontserbazio eta funtzionamendu egokirako lan eta instalakuntzak

Zerbitzuarekin lotura duten ondasunak ezingo dira enbargatu.

Kontratistak, beste bitartekoen bidez konpondu ezin daitekeen zerbitzuaren nahasmen larri bat eraginaraziko lukeen hauste edo ez betetze bat egingo balu, eta Administrazioak kontratua ez moztea erabakiko balu, honek bere bahiketa edo esku hartzea adostu ahal izango du, aipatu nahasmena desagertu bitartean.

Administrazioak, zerbitzuaren funtzionamendu egokia ziurtatzeko beharrezkoak diren antolakuntza botereak gordeko ditu.

21. KONTRATISTAREN LAN BETEBEHARRAK

Administrazioa lan, gizarte segurantza eta laneko segurtasun zein garbitasunaren alorretan indarrean diren xedapen gehigarriak betetzera behartuta dago; baita aplikagarria den hitzarmen kolektibo sektorialarekin bat doazen soldaten baldintzen ingurukoak ere, hori guztia, kontratu honen helburu diren zerbitzuetan erabiltzen dituen langileekiko. Administrazioa, ez betetze horretatik eratorri daitekeen erantzukizunetik salbuetsita geratuko da.

Kontratista, enplegatzaile modura, kontratuaren helburua den zerbitzua ematen ari den langileriarekin dituen lan harremanetan subrogatu beharrean aurkitzen den kasua:

- Kontratista, enplegatzaile bezala, kontratuaren helburua den zerbitzua ematen ari en langileriarekin dituen lan harremanetan subrogatzera behartuta dago; lan baldintza horien inguruko informazioa plegu honetako eranskinean dago. Kontratistaren aldetik subrogazio obligazioen inguruko ez betetze bat emango balitz, plegu honetako 26. klausulan aipatzen diren zigorrak ezarriko dira.

- SPKLko 130 artikuluan aurreikuste denarekin bat, subrogazioak eragiten dien langileei ordaindu gabeko soldaten inguruan erantzutera behartuta dago kontratista, eta baita sortutako Gizarte Segurantzako kotizazioei ere, kontratua eten eta kontratista berriak subrogatzen dituenen kasuetan ere, inongo kasutan obligazio horrek kontratista berriari eragiten diolarik. Kasu horretan, Udalak, aipatu soldatak ez direla ordaindu egiaztatuta, aurreko kontratistari zor zaizkion kopuruak atxikiko ditu soldata horiek ordaintzeko, eta behin betiko bermea ere atxikiko du, ordainketa frogatu arte.

22. KONTRATUA GAUZATZEN DEN BITARTEAN HIRUGARRENEI ERAGINDAKO KALTEEN INGURUAN KONTRATISTAREN ERANTZUKIZUNA

SPKLko 196. artikuluan esaten denarekin bat, kontratista izango da kontratuaren gauzatzeak eskatzen dituen operazioen ondorioz eragindako kalteen erantzulea.

23. KONTRATUAREN ALDAKETAK

Diligentzia: Nik Idazkariak jartzen dut horrela jasota gera dadin baldintza plegu hau, 2021ekoazaroaren 9ko Alkatetzaren erabaki bidez onartua izan zela.
Alegia, 2021eko azaroak 9

ALEGIAKO UDALA (Gipuzkoa) · IDAZKARITZA ·

Administrazioak interes publikoko arrazoiengatik kontratua aldatu ahal izango du, SPKLko 205. artikuluan espreski aurreikusten diren baldintzetakoren bat ematen denean, lege bereko 203, 206 eta 207 artikuluetan esaten denarekin bat eta beti ere, horrekin lizitazioko eta esleipeneko ezinbesteko baldintzak aldatzen ez direnean.

Dena den, klausula administratiboen plegu honetako 1 eta 20 artikuluetan aurreikusten denarekin bat, Administrazioak kontratua aldatu ahal izango du jarraian aipatzen diren kasu, baldintzetan eta irismen eta mugen interes publikoko arrazoiengatik:
Aldaketek eragin dezaioketen kontratuaren prezioaren gehienezko ehunekoa: hirurogeita hamar (%70).

SPKLko 205. artikuluan zehazten diren baldintzetakoren bat ematen denean ere aldatu ahal izango da kontratua, lege bereko 203, 206 eta 207 artikuluetan esaten denarekin bat eta beti ere, horrekin lizitazioko eta esleipeneko ezinbesteko baldintzak aldatzen ez direnean.

Kontratistarentzat derrigorrezkoak izango dira aurrez aipaturiko balizko aldaketak.

24. IZAERA PERTSONALEKO DATUEN BABESA

Kontratazio honek izaera pertsonaleko datuak biltzen dituen kasuan, kontratistak Datu Babeserako Araudi Orokorretik eratorritako betebeharrak bete beharko ditu eta baita SPKLko hogeita bosgarren xedapen gehigarritik eratorritakoak ere, abenduaren 13ko Izaera Pertsonaleko Datuen Babeseko 15/1999 Lege Organikoarekin eta bere garapenerako araudiarekin lotuta.

25. ZERBITZUAREN HARRERA ETA BERMEAREN EPEA

Kontratu honen izaera kontuan izanik, ez da berme eperik jartzea aurreikusten.

26. KONTRATISTARI ZIGORRAK HITZARTUTAKOA EZ BETETZEAGATIK

A. Kontratua gauzatzeko epeak ez betetzea

Kontratista, bere gain bota dakizkiokeen arrazoiengatik, kontratuaren gauzatze epea betetzerakoan, epe osoan zein epe partzialetan, atzeratuko balitz, Administrazioak, bere kabuz, kontratua etetea erabaki ahal izango du, bermea galduz edo kontratuko prezioko 1000 euroko, eguneko 0,60 euroko proportzioko isuna jarriz, BEZa kanpo.

Atzerapenengatiko isunak kontratuaren prezioaren ehuneko 5aren múltiplo batera iristen direnean, Kontratazio Organoak kontratua eten ahal izango du edo jarraipena ema ahal izango dio isun berriak ezarriz.

B. Zerbitzuen gauzatzea partzialki ez betetzea

Kontratista, bere gain bota dakizkiokeen arrazoiengatik, ez balitu kontratuan zehazten diren zerbitzuak partzialki gauzatuko, Administrazioak, bere kabuz, kontratua etetea

Diligentzia: Nik Idazkariak jartzen dut horrela jasota gera dadin baldintza plegu hau, 2021ekoazaroaren 9ko Alkatetzaren erabaki bidez onartua izan zela.
Alegia, 2021eko azaroak 9

ALEGIAKO UDALA (Gipuzkoa) IDAZKARITZA

erabaki ahal izango du, bermea galduz edo kontratuaren prezioaren ehuneko 10eko baliokidea den isuna jarri ahal izango dio.

C. Akatsekin betetzea

Zerbitzua akatsekin eskainiko balitz, Administrazioak kontratuaren prezioaren ehuneko 10a gaindituko z duten isunak jarri ahal izango ditu, BEZa kanpo; isun horien guztien baturak ezingo du hitzartutako prezioaren ehuneko 50a gainditu.

D. Ingurumen, gizarte edo lan arloko betebeharrak ez betetzea

Kontratistak ez balitu ingurumen, gizarte eta lan arloko betebeharrak beteko, bereziki larri eta mingarria den hitzarmen kolektiboetatik eratorritakoak baino baxuagoak diren soldata baldintzak edo soldaten ordainketetan behin eta berriz atzeratzea, SPKLko 201. artikuluan aurreikusitakoa aplikatuz, Administrazioak kontratuaren prezioaren ehuneko 10a gaindituko z duten isunak jarri ahal izango ditu, BEZa kanpo; isun horien guztien baturak ezingo du hitzartutako prezioaren ehuneko 50a gainditu.

E. Azpikontratistekiko bebeharrak ez betetzea

SPKLko 217. artikuluan esaten denaren kalterik gabe, kontratistak azpikontratistekiko betebeharrak ez balitu beteko, Administrazioak konratuaren prezioaren ehuneko 10a gaindituko z duten isunak jarri ahal izango ditu, BEZa kanpo; isun horien guztien baturak ezingo du hitzartutako prezioaren ehuneko 50a gainditu.

F. Langileen subrogazioarekiko betebeharrak ez betetzea

Kontratistak, kontratuaren helburu den zerbitzuak eragiten dien langileen subrogazioaren alorreko betebeharrak ez balitu beteko, SPKLko 130.4 artikuluan aurreikusten dena aplikatuz, Administrazioak kontratuaren prezioaren ehuneko 10a gaindituko z duten isunak jarri ahal izango ditu, BEZa kanpo; isun horien guztien baturak ezingo du hitzartutako prezioaren ehuneko 50a gainditu.

27. KONTRATUA ETETEKO ARRAZOIAK

Zerbitzuen kontratua eteteko arrazoiak dira Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legeko 211 eta 313 artikuluek ezarritakoak.

28. KONTRATUA LAGATZEA

Kontratistak, kontratutik eratorritako eskubide eta betebeharrak hirugarren pertsona bati utzi ahal izango dizkio, beti ere:

a) Lagatzailearen ezaugarri tekniko edo pertsonalak kontratuaren esleipenaren arrazoi erabakigarriak izan ez direnean,
b) Lagatzeak merkatu lehiakortasunaren mugatze eraginkor bat ez dakarrenean,
c) Lagatzeak kontratistaren ezaugarrietan aldaketa esanguratsurik suposatzen ez badu, ezaugarri horiek kontratuko ezinbesteko osagai bat direnean, eta
d) Lagatzea SPKLko 214.2 artikuluan biltzen diren eskakizun eta eskaerekin bat egiten denean.

Diligentzia: Nik Idazkariak jartzen dut horrela jasota gera dadin baldintza plegu hau, 2021ekoazaroaren 9ko Alkatetzaren erabaki bidez onartua izan zela.
Alegia, 2021eko azaroak 9



29. AZPIKONTRATAZIOA

Kontratistak hirugarren pertsonak azpikontratatu ahal izango ditu zerbitzua partzialki eskaintzeko. Edozein kasutan, azpikontratazio hori azaroaren 8ko Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legeko 215 eta 216 artikuluetako eskakizunak betetzeari lotuta egongo da.

IV.- ESKUMENA DUEN JURISDIKZIOA, ERREGIMEN JURIDIKOA ETA IZAERA

30. KONTRATUAREN IZAERA ETA ERREGIMEN JURIDIKOA

Plegu honetan oinarrituta egiten den kontratuak izaera administratiboa izango du eta plegu honen eta atxikita duen gainontzeko dokumentazio teknikoaren bidez zuzenduko da. Horretan oinarritzen ez den guztia, azaroaren 8ko Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legean esaten denarekin zuzenduko da eta aipatu Legeari aurre egiten ez dion guztian, urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretu bidez onartzen den Administrazio Publikoetako Kontratuen Legearen Araudi Orokorrean, urriaren 30eko Sektore Publikoko Kontratuen 30/2007 Legea partzialki garatzea ahalbidetzen duen maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretuan eta bere kasuan, Administrazio Publikoen kontratazioekiko aplikagarriak diren gainontzeko arauetan esaten dena aplikatuko da.

Klausula Administratibo Partikularren Plegu honen eta espedienteari atxikirako dokumentazio teknikoaren artean kontraesanen bat egongo balitz, Pleguan esaten denak lehentasuna izango du.

31. ADMINISTRAZIOAREN ESKUMENAK

Kontratua interpretatzeko, berau betetzeak sortu ditzakeen arazoak konpontzeko, interes publikoko arrazoiengatik aldatzeko, kontratuaren betetzeagatik kontratista errudun aitortzeko, kontratuaren exekuzioa bertan behera uztea, berau etetea eta horren eraginak zehaztearen eskumenak Administrazioari dagozkio, SPKLan ezarritako mugen barruan eta eskakizunei eta Administrazio Publikoen Kontratuen Legeko Araudi Orokorreko eraginei lotuta.

32. ESKUMENA DUEN JURISDIKZIOA

Kontratu honetatik eratorri daitezkeen gai eztabaidagarriak Kontratazio Organoak ebatziko ditu; bere akordioek bi administratiboari amaiera eman ahalko diote eta administrazio auziko jurisdizkioaren aurrean zuzenean inpugnatu ahal izango dira, azaroaren 8ko Sektore Publiko Kontratuen 9/2017 Legeko 44tik 60ra bitarteko artikuluek edo urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legean arautzen diren edozeinek araututako kontratazioaren alorrean jarri daitekeen helegite bereziaren kalterik gabe.

Alegian, 2021eko irailaren 30a

Alegiako
Udala

Diligentzia: Nik Idazkariak jartzen dut horrela jasota gera dadin baldintza plegu hau, 2021ekoazaroaren 9ko Alkatetzaren erabaki bidez onartua izan zela.
Alegia, 2021eko azaroak 9



AlegiakoUdala
2021 AZA - 2
SARRERA
Zkia. 535

ALEGIAKO UDALA

Idazkariari zuzendua

ALEGIAKO UDALA (Gipuzkoa) IDAZKARITZA

D. Jaquín Méndez Méndez, mayor de edad, con D.N.I. nº 72439215W, con domicilio en Alegia, Barrio Larraitz, 29- 2. Izda, en representación de la Asociación ZUGATIK ETXEZ ETXEKOLAGUNTZA ZERBITZUA de Alegia (Gipuzkoa), nº de Registro AS/G/21351/2017,

M A N I F I E S T A

Que la relación de trabajadores que a fecha de hoy están dados de alta en la Seguridad Social, Rég. General, son:

-Yolanda Barandiaran Merino, con DNI: 44130577V, con un contrato indefinido, a tiempo parcial (87,50% jornada).

-Rosa María Barandiaran Merino, con DNI: 72457668D, con un contrato indefinido, a tiempo parcial (44% jornada).

-Maria Cristina Iribarren Agirre, con DNI: 15985417A, con un contrato indefinido, a tiempo parcial (45% jornada).

-Aitziber Alfonso Rodríguez, con DNI: 72456462E, con un contrato de obra o servicio, a tiempo parcial (44% jornada).

Atentamente,

Firmado: Joaquín Méndez Méndez

Alegia, 2021ko urriak 26

Diligencia: La extiendo yo el Secretario para hacer constar que el presente pliego de condiciones ha sido aprobado por Resolución de Alcaldia 09/11/2021.
Alegia, 09 de noviemre de 2021
El Secretario

Alegiako Udala

SERVICIO DE AYUDA DOMICILIARIA DEL AYUNTAMIENTO DE ALEGIA
Alegiako Udalaren etxez-etxeko laguntza zerbitzua

PLIEGO DE CLÁUSULAS ADMINISTRATIVAS PARTICULARES TIPO PARA LA CONTRATACIÓN DE SERVICIOS POR PROCEDIMIENTO ABIERTO

I. ASPECTOS GENERALES Y CONFIGURACIÓN DEL CONTRATO

1. OBJETO DEL CONTRATO

El contrato que en base al presente pliego se realice tendrá por objeto **SERVICIO DE AYUDA DOMICILIARIA DEL AYUNTAMIENTO DE ALEGIA**, de conformidad con la documentación técnica que figura en el expediente que tendrá carácter contractual.

El objeto del contrato lo gestiona el Ayuntamiento de Alegia, en virtud del convenio de colaboración suscrito el 20/06/2018 entre la Diputación Foral de Gipuzkoa y el Ayuntamiento de Alegia (prorrogado) para la financiación del servicio de ayuda a domicilio para personas dependientes, del que trae causa y al que se vincula expresamente.

Para la prestación del servicio, además de lo que se establece en el Pliego de Condiciones Técnicas, son requisitos básicos:

1.- El contratista se obliga a prestar en todo momento el servicio a domicilio con personas que, conozcan, dominen suficientemente y puedan comunicarse normal y directamente sin necesidad de otras ayudas externas en cualquiera de los dos idiomas oficiales de la Comunidad Autónoma.

2.- El contratista se obliga a prestar en todo momento el servicio a domicilio con personas que cuenten con un nivel básico de preparación técnica para la prestación de servicio obligatorio, que en cualquier caso, deberá acreditarse documentalmente tal circunstancia académica homologada con anterioridad al comienzo de la prestación del servicio. En cualquier caso, el personal adscrito al servicio, deberá actualizar la formación específica con arreglo a las exigencias derivadas de la atención de personas discapacitadas y dependientes.

3.- Dada la naturaleza variable y flexible del servicio público en función de la demanda puntual que depende de las necesidades de los potenciales usuarios, la ejecución de contrato responderá a esta misma naturaleza, ajustándose en cada momento la prestación, así como los distintos horarios de prestación del servicio personalizados para los diferentes usuarios.

2. JUSTIFICACIÓN DE LA NECESIDAD DE CONTRATAR

En el pliego de prescripciones técnicas constan las razones que han llevado a esta Administración a la celebración del contrato a que se refiere el presente pliego.

Diligencia: La extiendo yo el Secretario para hacer constar que el presente pliego de condiciones ha sido aprobado por Resolución de Alcaldia 09/11/2021.
Alegia, 09 de noviembre de 2021
El Secretario

ALEGIAKO UDALA (Gipuzkoa) IDAZKARITZA

3. PLAZO DE EJECUCIÓN

El plazo total de ejecución de la prestación será de DOS AÑOS, contado a partir del día siguiente al de la formalización del contrato.

El contratista se entenderá incurso en mora por el transcurso del plazo citado, y para ello no será necesaria intimación previa por parte de la Administración.

4. PRESUPUESTO BASE DE LICITACIÓN Y VALOR ESTIMADO DEL CONTRATO

Precio máximo por hora en día laborable: 18,14€/hora, más 0,73 correspondiente al IVA (4%), que hacen un total de 18,87€/hora.

Precio máximo por hora en días festivos y fines de semana: 21,79€/hora, más 0,87 correspondiente IVA (4%), que hacen un total de 22,66€ hora.

Las cantidades citadas podrán ser mejoradas por los licitadores.

En la oferta deberá figurar el precio de forma desglosada indicando el tipo de IVA de aplicación.

El precio del contrato será la resultante de aplicar el precio hora indicado para una carga de trabajo que, para el presente ejercicio, se estima en 3.300-4.000 horas aproximadamente.

La estadística de la carga media de trabajo de los últimos años, proyecta una facturación total redondeada de 62.000,00€ - 75.500,00€ al año IVA incluido.

1.- El presupuesto base de licitación será de 18,14 €, más 0,73€, correspondientes al IVA, presupuesto que podrá ser mejorado por los licitadores.

A los efectos previstos en el artículo 100.2 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público (en adelante, también LCSP), el referido presupuesto se desglosa del siguiente modo:

- Costes de personal: 14,69€
- Otros costes directos: 0,00€
- Costes indirectos (GG+BI 19%): 3,45€
- Otros eventuales gastos: 0,00€

2.- El valor estimado del contrato es de 72.560,00 €, excluido IVA al año. Total estimado para el plazo de ejecución : 145.120,00€.

5. FINANCIACIÓN

Para sufragar el precio del contrato hay prevista financiación con cargo al presupuesto del año en curso. Asimismo, el órgano competente en materia presupuestaría se compromete a reservar los créditos oportunos en los presupuestos futuros que resulten afectados y todo ello con relación al convenio de colaboración a que se refiere el artículo primero del pliego de descripción del objeto del contrato.

Diligencia: La extiendo yo el Secretario para hacer constar que el presente pliego de condiciones ha sido aprobado por Resolución de Alcaldía 09/11/2021.
Alegia, 09 de noviembre de 2021
El Secretario



6. RÉGIMEN DE PAGOS

